

Auzoen Mahaia.

Eremuetako 1. bilera.

Berazubi, Iurramendi, Iurre.

Tolosako udala.

1. Laburrean

1. Oinarrizko informazioa.

Data: maiatzak 07

Ordutegia: 16:00etatik 17:30etara.

Tokia: Tolosako udaletxea

Parte-hartzaileak:

- **Tolosako Udala:**

- o Andu Martinez de Rituerto, alkatea
- o Josune Sanz, Komunitatea eta Gobernantzako zinegotzia.
- o Garikoitz Lekuona, Komunitatea eta Gobernantzako arduradun teknikoa.
- o Lide Olalde, Komunitatea eta Gobernantzako dinamizatzailea.

- **Laguntza-taldea:** Nommad kooperatibako Axel Moreno.

- **Inguruko auzoetako bizilagunak:** 8 bizilagun, 8 gizonezko.

2. Saioaren helburua:

- Inguruko bizilagunak elkartzeko gune bat sortzea, eta prozesuaren fase hori abian jartzea.
- AuzoEkinen prozesua azaltzea, eta Auzoen Mahaiari aplikatzea.
- Auzoen Mahaiak auzo bakoitzerako ezarritako neurrien aurrerapenak partekatzea eta eztabaidatzea.
- Auzoen eskaera berriei erantzuna (partziala) ematea.
- Auzoen Mahaitik AuzoEkinerako trantsizioa egiteko hurrengo urratsak aurkeztea.

2. Saioaren laburpena

1. Sarrera.

- Alkateak ongietorria egin die bertaratuei, eskerrak eman dizkie eta sarrera instituzionala egin du. Ondoren jardunaldia prozesuan kokatzeko azalpena (nondik datorren, gaur egun non dagoen) izan da.
- Prozesuaren, jardunaldiaren eta dinamikaren aurkezpena, Nommad kooperatibako Axel Morenok egin.

2. Elkar ezagutzen.

- 3 auzoetako kide ezberdinak
- Auzo elkartekoak, garajeetako ordezkariak, portaletako ordezkariak...

3. AuzoEkin eta Auzoetako Mahaiaren aurkezpena.

Komunitatea eta Gobernantzako arduradun teknikoa den Garikoitz Lekuonak honako gai hauen berri eman du:

- AuzoEkinen eta Auzoetako Mahaiaren aldi bereko prozesuaren aurkezpena.
- AuzoEkinerako trantsizioa egiteko urratsak.

4. Auzoetako Mahaiko neurrien aurrerapen maila.

Alkateak gaiei lotuta azken hilabeteetan hartutako neurrien aurrerapenak azaldu ditu eta bizilagunekin aztertu dira:

- **Aparkalekuak**
 - Behin baino gehiagotan hitz egin da auzo hauetan aparkalekuarekin dagoen arazoaz, eta TAOren lizitazioa berritu egin behar denez, zenbait aukera jarri dira mahai gainean.
 - *Berazubi, Papeleros, Eroski* eremuetako aparkalekuen inguruan hitz egin da.
 - Auzoan trafiko gutxiago egoteko eta bizilagunen erosotasunagatik lurren TAOa jartzea planteatzen ari da Udala.
 - Auzoko komertzioetan lan egiten dutenei kuota berezi bat eskaintzea proposatu du bizilagun batek. Haien lana egiten duten bitartean aparkatzeko arazo handiak dituzte eta beste hiri askotan kuota berezi hau dute (tarifa 2). Udalak proposamen hau ondo hartu eta begiratuko duela esan du.
 - Beste bizilagun batek gogorarazi du auzoan etxebizitza berriak egiteak are kotxe gehiago ekarriko dituela.
 - Aparkalekuaren herri osoan eragiten duen arazo bat da, gaur egun 11000 kotxe daude Tolosan. Udala horren inguruko datuak biltzen ari da, eta aurrerago publikatuko ditu.
 - Dena den, guzti hau auzotarrekin kontrastatuz adostuko da.
- **Iurramendiko etxebizitza berriak.**
 - Kezka
- **Espaloiak.**
 - *La acera pobre*: Urgentzia handia duen konponketa da, espaloiak oso zartatuak daude. Konpontzeko konpromisoa hartu da.
 - Etxe berrien ondoko biribilgunean dagoen espaloia handitu egingo da eta biribilgunea txikitu.
 - Proiektua edozein momentutan erakusteko prestasuna erakutsi du Udalak.
- **Auzoko kimaketa lanak**
 - Araudi berriak nahiko zorrotzak dira, eta enpresek araudi zurrinak jarraitu behar dituzte. Hala ere berriz ere hitz egingo dugu enpresarekin.
 - Berazubin, biribilgune ondoko zuhaixkek ikusmena oztopatzen dute.
- **Berazubiko aurrekontuak**
 - Dena argitua. Urtarrilean aurkeztutakoak martxoa-apirilan kobratzen da %25a.
- **Ibai ertzeko pasealekua**
 - Bizilagun batek proiektu honen inguruan galdetu du, baina epe luzera egingo dela aipatu dute.
- **Berazubiko frontoiko zebra-bidea**
 - Alde batean dagon paretak karreteratik eta espaloitik datozenen ikusmena guztiz oztopatzen du. Proposamen ezberdinen inguruan aritu ziren; ispilu bat, stop handi bat...
- **Txirrindulariak**
 - Asko abiadura handian ibiltzen direla komentatu da, erabilera arauak ez direla errespetatzen.

- **Trafikoa**

- Semaforo batzuk itzali egin dira trafikoa arintzeko. Hobekuntza nabaritu da. Oinezkoen segurtasuna handitzeko seinale argiztatuak eta trafikoa moteltzeko oztopoak jarriko dira.

5. Itxiera.

- Hurrengo urratsei buruzko azalpena, Josune Sanz, Komunitatea eta Gobernantzako zinegotziak emana:

- Eskaerak jasoko dira eta dagokion zerbitzuetara bideratuko dira.
- Hurrengo bilera, bestelako beharrik sortu ezean, urtearen amaieran egingo da, gai desberdinen aurrerapenaren jarraipena egiteko eta 2026ko aurrekontu-urteari begira egin daitezkeen jarduketak proiektatzeko.

- Partehartzaileei esker ona adierazi zaie eta bilkurari amaiera eman zaio.